



Euskararen berri OLAtu gainean



2011ko abenduko ALBISTEAK:

Euskaldun izatearen (des)grazia

Goian bego Europako hizkuntzarik zaharrenetarikoa. Zahartuta, hala behar zuelako hil da, inork ez baitu inoiz ezer egin bere aurka. Arazo bat gutxiago, ezta?

Sustatu: http://feedproxy.google.com/~r/sustatu/~3/d_wLKKyplvk/1322851016

Euskara lehenengoz agertzen da BOEn

Estatuko Aldizkari Ofizialean, abenduaren 7an argitaratu zen euskarazko lehen gehigarria; hain justu ere autonomia erkidegoetako hizkuntza koofizialetan legeak argitaratzea, Estatuak arautu zuenetik 14 urte igaro eta gero.

HPS: http://www.euskara.euskadi.net:80/r59-738/eu/contenidos/noticia/2011_12_02_por_primera_vez_el_/eu_8391/8391.html

Nortasun agirian euskararik ez

Begi bistakoa da gehiago kezkatzen gaituela egoera ekonomikoak, baina nortasun agiria euskaraz ateratzeak zero kostua du. Galizian, Valentzian, Balearretan, Euskadin eta Katalunian bi hizkuntzetan ateratzen dira. Doan ateratzen den neurria da.

Berria: http://paperekoa.berria.info/iritzia/2011-12-03/005/004/nortasun_agirian_euskararik_ez.htm

Berria Taldeak ekarpen pertsonalen kanpaina abiatu du, 5.000 lagunengatik 'ziztadak' behar dira

Helburua da urtean 100 euroko ekarpena egiteko prest daudenak 5.000 lagun lortzea.

Sustatu: <http://feedproxy.google.com/~r/sustatu/~3/QFGY6VIUIU4/1322384029>

Gazteei klasikoak euskaraz ekarriko dizkie Galtzagorri elkarteak

Belaunaldi ugari literaturaren munduan murgildu dituzten liburu klasikoek egungo gazteei ere zerbitzu egin diezaioten, marrazki eta kolore biziekin gaurkotutako eta euskaratutako Klis-klasikoak izeneko liburu bilduma aurkeztu du Galtzagorri elkarteak

Berria: http://paperekoa.berria.info/plaza/2011-11-26/041/001/gazteei_klasikoak_euskaraz_ekarriko_dizkie_galtzagorri_elkarteak.htm

Zerbitzu guztiak euskaraz eskainiko ditu Aldundiak hiru urte baino lehen

Gipuzkoako Foru Aldundiak euskaraz eskaini nahi ditu bere zerbitzu guztiak 2015erako, herritarren "hizkuntza eskubideak" bermatu asmoz.

Noticias de Gipuzkoa: <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2011/12/01/sociedad/euskadi/zerbitzu-guztiak-euskaraz-eskainiko-ditu-aldundiak-hiru-urte-baino-lehen>

Abantailak eta deskontuak

Mintzapraktika programetan parte hartzen dugunok, euskaraz hitz eginez gozatzeaz gain, berbalagun, mintzalagun, mintzakide... izateagatik bakarrik, hurrengo abantaila hauek izango dituzu.

Praktikatu: <http://praktikatu.blogspot.com/2011/12/abantailak-eta-deskontuak.html>

Etxean nagusi

Gure historia —istorioetatik bat— bizkor narratu dezagun. Agian, Brontze eta Burdin aroko herri batzuk izan ginen, eta gure hizkuntza zen batzarren eta buruzagien mintzoa. Indarra genuen alde, beregainak ginen, etxeko jaun eta andre.

Berria: http://paperekoa.berria.info/iritzia/2011-12-13/006/001/etxean_nagusi.htm

Twitter aplikazioa euskaratu du Blackberryk

Blackberry telefonoen erabiltzaileek Twitter euskaraz konfiguratu dezakete, aplikazioaren azken bertsioa jaisten badute. Hasiera batean, albistea sare sozialetako enpresa erraldoiaren mugimenduen lehen adierazle zela irudi zezakeen arren, gaur jakin dugu ez dela hala.

Argia: <http://www.argia.com/albistea/twitter-aplikazioa-euskaratu-du-blackberryk>

Euskaldun jaio nintzen...

Bazuen Felipe Arrese Beitiak antza lanak koloreztatzen zizkion ezkutuko miraberik. Haurtxo bat zela, sakonean errotu izan zitzaizkion ama-hizkuntzak bere nortasunerako bizitzan izango zituen garrantziaren lehen sentimenduak.

Berria: http://paperekoa.berria.info/iritzia/2011-12-15/005/004/euskaldun_jaio_nintzen.htm